



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Estola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina
23. alea | 2007ko Azaroa / A | nazioartea@euskaleskola.org |
<http://www.euskaleskola.org/>

IKASLE MOBILIZAZIOAK AREAGOTZEN ARI DIRA

Azaroa mobilizazioz bete egoten den hilabetea izan ohi da ikasle mugimenduaren artean. Euskal Herrian Azaroaren 17an egongo den Ikasle Egun eta Topaketetarako deialdia egiten den bitartean munduko beste hainbat lekutan mobilizazioak prestatzen ari dira.

Katalunian, adibidez, hainbat ikasle biltzen dituen Unibertsitate Publikoaren Defentsarako Plataforma Mobilizatzaileak (PMDUP) greba deitu du Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Azaroaren 15ean. Plataforma honek aurrekotan ere mobilizatzeko gaitasun handia duela erakutsi izan du eta oraingo honetan nahiko bero daude gauzak. SEPC ikasle antolakunde nazionalak, PMDUPen parte hartzen duenak, bertan parte-hartzeko eta egongo den manifestaldira joateko deialdia luzatu du.

Erromako Sapienza Unibertsitatean fakultatez-fakultate mobilizazioak egiten ari dira “270 erreforma”ren aurka. Pasa den Azaroaren 9an hainbat ekimen egin zituzten publikoa dena berreskuratzeko asmoz. Fakultate batzuetan kopistegiaren okupazioak egin ziren eta hainbat eremuren berrapropiazioa burutu zen Zientzia Fakultatean.

Baina hurrengo asteetan mobilizaziorik garrantzitsuenak Frantziar estatuan izango direla aurreikus daiteke. Pasa den Azaroaren 6tik 9ra hainbat Asanblada Orokor burutu ziren unibertsitate ezberdinetan Unibertsitate Autonomia Legearen aurka. Batzuk arrakastatsuak izan ziren (Baionako kanpua biltzen duen Pabeko Unibertsitatean, adibidez, 1500 bat ikasle bildu ziren asanbladan, grebaren alde 1200 baino gehiagok bozkatuz). Valerie Pecesse Unibertsitate eta Ikerketa ministroak eginiko legearen aurka mobilizatzeko deialdia geroz eta gehiago hedatzen ari da. Egon direnak oso handiak ez badira izan gogoratu beharra dago CPEaren aurkako hasierako mobilizazioetan baino jende gehiagok hartu duela parte. Azaroaren 20an Sindikatuen Konfederazioak egin duen deialdia jarraituz UNEF eta JCRk ikasleek ere egun horretan greba egiteko apustu sendoa egin dute. Horrek, berriro ere, Euskal Herriko unibertsitate komunitateak dituen beharrak inolaz ere kontsultatu gabe, noski! Dagoeneko berotzeko lanean hasi dira eta hainbat unibertsitate blokeatzea lortu zuten joan zen Azaroaren 9an, administrazioak itxiera deituz. UNEFek (PSFren ingurukoa da gehiengo bat) kartel polemikoa egin du eta Arroxelan 3 ikasle atxilotu zituzten kartelaren inguruan itauntzeko asmoz. Greba ondo atera edo ez hurrengo bi asteak nahiko beroak izango direla aurreikus daiteke, batez ere egongo diren mobilizazio eta asanblada kopuruari erreparatuz gero.

Informazio gehiagorako:

www.ikasleabertzaleak.org

www.sepc.cat

www.colletivi.org

www.jcr-red.1901.org/ (bereziki irakurtzeko interesgarria: <http://www.jcr-red.1901.org/spip.php?rubrique211> eta euren aldizkaria: http://www.jcr-red.1901.org/IMG/pdf/RED_84-novembre2007b.pdf)

www.unef.fr (kartela: <http://www.unef.fr/delia2medias/deliamedia10/1097-1f7b80.jpg>)

Hainbat bideo Youtuben:

http://www.youtube.com/watch?v=0srh_E8yZK0, <http://www.youtube.com/watch?v=oMlgiHILVRI>,

http://www.youtube.com/watch?v=WL_CeUe_uGc, <http://www.youtube.com/watch?v=tEv2xtxIukM>,

http://www.youtube.com/watch?v=7ZJ_9VBNh8, http://www.youtube.com/watch?v=AVHbDQO5_3w,

ESPAINIAKO GOBERNUAK BOLOGNAN SAKONDU DU.

Urriaren amaieran Espainiako Gobernuak Unibertsitate dekretu berria onartu du. Dekretu honen bitartez karreraren iraupena zehazten da eta azkeneko urtetan aurrera egin ezinik egon den gakoan sakondu dute.

Erret Dekretuak hiru maila ezberdinetan banatzen ditu ikasketak: gradua, graduondokoa eta doktoretza. Graduak 4 urte iraungo ditu (Medikuntza eta Arkitektura ezik, Europar normatiba bat bete behar dutenak eta 5 urte iraun ahal izango dutenak) eta bertan ezagutza “orokorrago” bat ematea da helburua. Graduak ezartzean, hurrengo ikasturtean, Lizentziaturak eta Diplomaturak desagertzen dira. Hortik 2010erarteko epea hartu dute karrera “zahar” guztiak desagerrarazteko eta berriak inposatzeko. Gainera egongo den gradu bakoitza sortu dituzten 5 taldeetako baten barruan egon beharko du.

Graduaren ostean graduondoko bat egin ahal izango da eta horren ostean Doktoretza bat. Doktoretza egiteko behar-beharrezkoa da graduondoko 60 kreditu ECTS gainditu izana. Gainera Europar Doktoretza sortzen da, EBko beste herrialde batean 3 hilabete egon bada ikertzailea edo tesi epaimahaiko kide bat atzerritarra bada.

Orain Unibertsitate bakoitzak otsaileko epea izango du eskainiko dituen titulazioen nolakotasuna eta kopurua zehazteko eta plan berrira egokitzeko. Hala ere eskaintzen diren titulu guztiek 6 urtero ANECA agentzia pribatuaren (eta askotan interes ekonomikoak lehen mailan jartzen dituenak) azterketa egin beharko dute eta honek minimoak betetzen ez dituela baderitzo zuzenean desagertuko da gradu osoa. Modu honetan esku pribatuen esku-sartzea bermatzen da hezkuntza publikoan.

Oraindik gauza nahiko ditu hala ere ilunean geratzen direnak. Adibidez ez da zehazten zer gertatuko den ingeniartzekin (espainiar estatua bakarra da Europa osoan bi ingeniartza mota dituenak). Gainera Londonen eginiko ministroen bilkuran ezarri ziren helburu ziztrinak ere ez ditu beteko, hau da, ez dio inori galdetuko prozesua nola garatu nahi duen.

Informazio gehiagorako:

Ofiziala: <http://www.mec.es/multimedia/00005153.pdf>

<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=58373>

WIKIBERTSITATEAK URTE BAT BETE DU.

Urte bat bete du dagoeneko Wikibertsitateak, interneten sortutako unibertsitate askea non edozeinek ikas eta irakatsi dezakeen dohainik. Oraindik ez dago euskaraz dabilen Wikibertsitarik, ez baitago sortuko duen komunitaterik, baina ingeleraz gain gazteleraz, frantsesez, alemanez eta italieraz ere sortu dira kanpus birtual hauek. Lehen Hezkuntzatik Unibertsitaterainoko edukiak eskaintzen dira.

Wiki teknologia erabiltzen du, non edozeinek zuzendu dezakeen aurreko batek eginiko testua eta guztien artean neutraltasuna eta ahalik eta edukirik osoenak bilatzen diren. Wikibertsitatean bertan horrela definitzen dute euren ariketa: “Wikibertsitatea ikasi eta besteei ikasteko erraztasunak emateko esfortzu komunal bat da. Wikibertsitatea informazioa bilatzeko edo gai baten inguruko galderak egiteko erabili dezakezu. Gai baten inguruan duzun jakintza partekatzeko ere erabili dezakezu, eta eskola-materialak osatzeko.”

Momentuz ingelerazko bertsioak 11 Fakultate ditu, horietako batzuetan 8 karrera era eskaintzen direlarik, Humanitate Fakultatearen kasuan bezala. Oraindik karrera asko bukatu gabe daude, Wikian zerbait noizbait bukatzen dela onartu ahal badugu. Baina filosofia ezberdina da. Wikibertsitatean ez da titulu bat eskuratzeko ikasten, ezagutzaren plazerragatik baizik.

Informazio gehiagorako:

http://en.wikiversity.org/wiki/Wikiversity:Main_Page (ingeleraz)

<http://es.wikiversity.org/wiki/Portada> (gasteleraz)

<http://fr.wikiversity.org/wiki/Accueil> (frantsesez)